

[Kontakizun moderno bat dugu aurrean, nazismoaren kontrako salaketa, teknika narratibo aurreratu baten bitartez, fikziozko literaturara daramana]

Ezezaguna helbide honetan.

Kressmann Taylor

Itzultzailea: Ramon Etxezarreta

2003

Erein

Kontakizun moderno baten aurrean gaude. Katherin Kresmannek 1938.ean eleberri hau lehendabizikoz argitaratu zuenean Kressmann Taylor ezizen literarioa erabili behar izan zuen, obra gogorregia omen baitzen emakume batek sinatua izateko.

Genero epistolarra. Bi lagunen arteko gutun-trukaketa. Lagunak ez ezik, artearen merkatuan negoziokide ere badira, Estatu Batuetako Eisenstein Galleries enpresa baitaramate bien artean. Max Estatu Batuetan gelditzen den bitartean, Martin Alemaniara doa, non nazismoa bizi-bizi ari den indartzen. Horixe da kontakizunaren abiapuntua. Orduan hasten baitira bata besteari gutunak idazten. Eta helmuga, berriz, heriotza, Martinen heriotza, baina baita Grisellerena eta, azken finean, juduena. Ezin modu grafikoagoan heltzen gara, gainera, helmuga horretara, Martinen heriotzara. Gutun bat ageri da marraztua azken orrialdean eta helbide tatxatu bat: *helbide ezezaguna*.

Berebiziko garrantzia du grafikotasunak kontakizun honetan: detaile orok du esanahia, hala nola letra tipografiak berak. Kontakizun labur honek urtebete eta hiru hilabetetan gertatutakoa biltzen du bere baitan, eta hori ere modu grafikoan ematen zaigu, gutun bakoitzean data zehatza agertzen baita.

Narratzailea desagertu egiten da, istorioa zuzenean bizi du irakurleak, zuzenean mintzo baitzaizkio pertsonaiak. Irakurleak osatuko du, beraz, kontakizuna, pertsonaia bakoitzaren bilakaeraren eta jokabidearen arabera. Eta hori guztia, progresio neurtu batean. Nekez egin daiteke, nik uste, kontakizun objektiboagorik. Teknikoki perfektua dela esango nuke.

Idazketari berari buruz gogoeta egiteko parada eskaintzen digu liburu honek. Azken finean, Roy Harris-ek, semiologia integrationala proposatzen duenak, Signos de Escritura liburuan dioen bezala, Saussurek erakutsi baino askoz ere kontzeptu zabalagoa da idazkuntza. Hainbat idazketa modu daude –musika, matematika, zeinuak...- eta hainbat faktorek eragiten dute idazkuntzan, alde bisualek, kontestuak... Eta idazteko moduak, edo estiloak nahiago bada, ematen dio zentzua literaturari, zeren Vicent Verdúk esaten digun bezala, besterik gabe istorioak kontatu nahi dituenak hortxe dauzka gidoigintza, zinema, bideoa edo komikiak. Idatzita dagoen erak egiten du batez ere interesgarri liburu hau, liburu berezi hau. Alde horretatik, bete-betean asmatu du liburu hau euskal literaturara ekartzea erabaki duenak.

Gaiari dagokionez, objektiboki kontatua izan arren, ebidentzian gelditzen dira nazismoaren mitoak eta ezaugarriak, baina, aldi berean, ez dira ezkutatzen herrialde hark pasatako garai zailak. Gertakizun batek bultzatu omen zuen Katherine Kressmann liburu hau idaztera: "Gerratea baino zertxobait lehenago, adiskide alemaniar batzuk – kultuak, intelektualak, bihotz onekoak- Alemaniara itzuli ziren Estatu Batuetan bizi ondoren. Oso denbora gutxian nazi sutsuak bilakatu ziren". Horren zergatiak jakin nahi zituen. Eta horren zergatiak jakiteko gogoia pizten du liburuak. Alde horretatik ere merezi zuen, noski, obra hau gure hizkuntzara ekartzea.

Ramon Etxezarretaren itzulpenak ere, kontakizunak berak bezala, arin kurritzen du, enbarazurik egin gabe, ulertteraza da eta ondo funtzionatzen du.

Esandakoa, bai literaturaren aldetik –narrazio teknikaren aldetik-, bai gaiarenetik ere, ondo irabazia du liburu honek bere lekua euskarara itzultitako liburuen ondarean, euskal literaturaren ondarean, azken finean.

Mikel Garmendia